

# Jakoba Errekondo: “Euskaraz eman-hartu esan behar genuke”

Apirilak 28, astearte eguerdiz, Bretxako azokan. Sagardo, pintxo eta trikitiarekin festa eginaz aurkeztu zen *Bizi Baratzea* baserritarren postu artean. Biharamonean bigarren edizioa jarri zen inprentara bidean.

Testua eta argazkiak:

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |



GOIKO argazkian dituzue *Bizi Baratzea* aurkeztu zutenak: Inaxio Balberde (Bodegon Alejandroko sukaldaria), Arantxa Iturbe, Jakoba Errekondo eta Unai Brea ARGIAKO kidea. Bodegon Alejandroko sukaldari Inaxio Balberdek eskerrak eman zizkion Errekondori, “liburu honi esker ongi ezagutuko dugu landare bakoitza. Eta hori ezinbestekoa da, produktu horiekin eginko kalitate handiagoko platerak eskaini ahal izango baitizkiegu gure bezeroei”.

Arantxa Iturbek hartu zuen segidan hitza. Bera da Errekondorekin astero Euskadi Irratian audientzia gehien duen irratsaioa egiten duena: “Sarrera egiteko eskatu zidanean, pentsatu nuen, akabo! Oraintxe geratuko da agerian 30 urte hauetan zer gutxi baliatu dudan landareez ikasteko aukera. Baina Errekondo-

ren azalpenetatik pertsonez eta harremanez ere asko ikasi dut”.

Jakoba Errekondok ohartarazi zuen liburuaren azalak badituela hiru titulu, “Bizi Baratzea” nagusia, “garaian garaikoa garaiz” ondokoa, eta oso garrantzitsua, gutxi arreta jartzen diona: “Eman eta hartu”. “Baratzean hartu baino lehen eman egin behar da. Eta bizitza baratzea besterik ez denez...” atera kontuak. Argudiaketa jarraitu zuen: “Ematea

emea da, etorkizuna emea da, emankortasuna emea da... Harra, berriz, hartzea. Euskaraz hartu-eman esaten dugu, baina eman-hartu esan behar genuke, lehenengo eman egin behar baita”. Euskaraz baratzea zuhaitz, landare eta loreen bizitoki dela ere azaldu zuen: “Euskarak ez du ‘jardin’ esateko hitzik. Lorategi asmakizun sabindarra da. Betidanik baratzean landu dira loreak, barazkiak eta fruta-arbolak”. Aniztasun hori du oinarri liburuak, “baratze bakoitza bakarra da. Ez dago baratzerik beste baten berdina denik, eta baratzezainik ere ez”.

Irakurleek zuku gehien aterako dioten atala trukuena dela azaldu zuen: “Katuak non egiten du siesta? Jarri hor tomate landarea. Berau izango baita inguruko leku lehor, eguzkitsu, gozoena. Halako truku asko dago liburuan”. ■

**Harpidedunok aukera dugu egileak sinatutako liburuak eskuratzeko. Idatzi denda@argia.eus- era eta adierazi liburu norentzat eskaintzea nahi duzun**